



Esp. kodea: 2024KZUD0005
Titularra: GOIKOBALU ABESBATZA

Gaia: Goikobalu abesbatzaren dirulaguntza eskaera
2024

ARRASATEKO UDALA eta GOIKOBALU ABESBATZAren arteko HITZARMENA

Arrasaten, 2024ko ___ Ekainaren ___ 13 _____ an

BILDUTA

Alde batetik Mainer Morras Azpiazu, Arrasateko Alkatea

Bestetik, ___ Mainer Ruiz Gorosabel _____, N.A N_72446757T_ duena eta Goikobalu abesbatza (IFK : G20303178)ren izenean

ADIERAZTEN DUTE

. Goikobalu Abesbatza 1989an sortutako elkarte da. Bere helburua da, besteak beste Arrasaten abesbatza musika zabaltzea .

. Arrasateko Udalak Arrasateko eragileen musika jardura bultzatu eta abesbatza musika sustatu eta Goikobalu Abesbatzari sostengua emateko helburua du. Xede horrekin 2024ko aurrekontuan Goikobalurentzat 10.000 euroko izendun dirulaguntza onartu du.

. Hitzarmen hau gauzatzeko eskumena aitortzen dio Udalari 2/2016 Legeak, Toki Erakundeei buruzkoak. Legearen 17. Artikuluak jasotzen du Udalaren eskumen propioen artean hauxe: “Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea”.

Alde biak bat etorri dira lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko, honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

- **Lehena:** Arrasateko Udalak 10.000 euroko laguntza emango dio Goikobalu Abesbatza kultura elkarteari 2024 urtean. Laguntza hau, batez ere, abesbatzaren zuzendaritza-gastuak ordaintzera bideratuko da (heldu, gazte eta haurrenak), baita taldearen funtzionamenduak eragindako gastuak ordaintzera ere.
- **Bigarrena:** Laguntza ordainduko da bi zatitan:
 - Laguntzaren %60, 6.000 euro, hitzarmena sinatu eta hilabeteko epean..
 - Gainerakoa laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikazioa aurkeztu behar da 2025ko urtarrilaren 15a baino lehen eta egin ahal izango da 2024ko laguntza deialdiaren 23. artikulua jasotako moduetako baten.

Kodea	BD24/00012	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA118M2.8.3VLJ			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA118M28.3VLJ			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024KZUD0005
Titularra: GOIKOBALU ABESBATZA

Gaia: Goikobalu abesbatzaren dirulaguntza eskaera
2024

- **Hirugarrena:** Goikobalu hainbat kontzertu burutuko ditu Arrasaten herriko kultur eskaintza sendotu eta aberasteari begira. Kontzertuetarako data zehatzak adostuko dira Abesbatza eta Udalaren ordezkarien artean.
- **Laugarrena:** Goikobalu Abesbatzak kaleratzen dituen kartel edota gainerako inprimaki eta abarretan, nahiz jendaurrean edota hedabideen aurrean egiten dituen agerraldietan adierazi beharko du Arrasateko Udalaren laguntza jasotzen duela.
- **Bosgarrena:** Hitzarmenaren jarraipena egiteko osatutako da lantaldea. Lan taldea hauek osatuko dute: Arrasateko Udalaren ordezkariak izango dira Kultura Batzordeko burua eta Kultura teknikaria, eta Goikobalu abesbatzak izendatuko ditu bi ordezkari
- **Seigarrena:** Indarraldia. Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31 artekoa izango da

Ados daudela adierazteko alde biek hitzarmen hau sinatu dute idazpuruan adierazitako egun eta lekuan

Arrasateko Udala

Goikobalu abesbatza

Kodea	BD24/00012	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA118M2.8.3VLJ		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA118M28.3VLJ		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			

